




# Erabil ezazu sukaldean gatz arruntaren ordez. Zeure eta etxekoen osasunagatik.

**Zer da IODOA?**
Bizitzeko funtsezkoa den elementua da.

**Zer nolako ondorioak dakartza IODO faltak?**
Ondorio larriak ekar ditzake:

**BURU-ATZERAKUNTZA HAURRENGAN:**
Atzerakuntza sakona itzulezina da. Honekin batera hazkundeko atzerakuntza ager daiteke.

**Haurdunaldian eta haurraren lehen urtean -nerbio sistema zentralaren garapenerako funtsezko aldia- behar adina iodo ez hartzeak sortarazia da.**

**GAINERA, BESTE ONDORIO BATZUK ERE UKAN DITZAKE:**

**Haurrengan**, pisu eta altuera txikiagoa, eta zailtasunak ikasketetan.
**Haurdunengan**, abortoa eragin dezake.
**Helduengan**, azal lehorra, idorreria, logura eta nekea.



**Nola prebeni daiteke?**

Erraz-erraz, **GATZ IODATUAZ.**
**Ez da gatz gehiagorik kontsumitu behar, gatz arruntaren ordez gatz iodatua hartu baizik.**

Gomendagarri da, halaber, astean behin edo birritan itsasoko arraina jatea.

**Zer da GATZ IODATUA?**

IODOA gehitzen zaion GATZ arrunta da. Gatz arruntaren gustu berbera dauka eta kantitate berdinak erabiltzen dira.

**Non erosten da GATZ IODATUA?**

Gatz arrunta erosten den saltegi beretan, hau da, elikadurako supermerkatu eta dendetan.

Gatz arruntarekiko prezioan duen aldea hutsaren hurrengoa da, baina osasunerako duen onura, kalkulaezina.

